

## LURRALDEA ETA ARKITEKTURA

## SATE



ULA IRURETAGOIENA

Urte batzuetatik hona, SATE modako hitza bilakatu da hiztegi arkitetniko eta etxebizitza-erakin komunitateetan. Eraikinari beroki bat jartzearen parekoa da, berezko fatxadaren gaintetik tenperatura aldaketatik babestuko gaituen azal bat gaineratzea. Eta aurrerantzean gehiago entzungo delakoan nago, Europatik jasoko diren dirulaguntzek gure eraikinak etorriko denari hobeto prestatzeko teknika bultzatzen baita, eta emaitza oso onak ematen dituelako. Ohartuko zineten gure kaleetan aldarmioak topatzen ditugula gure ibilbidean geroz eta gehiago, garai batean bezala, fatxadak garbitzeari ekin genionean. Oraingoan, eraikinak termikoki hobeto funtzionarazteko da, energia eta ekonomiaren auzian arkitekturak eskaini dezakeen baliabideetako bat.

Ez da ohikoa arkitektoek plaza publiko hartzea gizarteraturiko gai batean posizionamendu argi bat agertzeko, ez gara kolektibo polemikoa, are gutxiago gizaratean onarpen altuko gai baten inguruan. Eta SATEarekin gertatu da. Eraikuntza teknikaren onurak ezbaian jarri gabe, teknika honen ondorioetan ardura dagoela azaldu da. Jaka berriak aurreko fatxadako arkitektura ukatzen duenean, berokiak metalezko txapa baten akabera duenean eraikinaren berezkotasunak ezabatuz, beste eraikin bat azaltzen da paisaia urbanoan. Eraldaketaren kontrako erresistentzia baino, arkitekturaren aldeko garrasia da, irudimen kolektiboan fatxaden arkitekturak sortzen duenaren suntsipen baten alarma bat. Kalitate arkitetnikoak eskatu nahi da materialtasun eta teknikaz harago; eraikinaren konposaketa, materialen ehundura, leiho eta hutsuneen gorpuzketa bolumentrikoa, kolorearen erabilera... aintzat hartzea. Aurreko belaunaldiek utzi diguten paisaia urbanoaren oinordea zaintzea alegia; paisaia hau ez dute izen argitsua duten arkitektoek burutu, ez daude babes bereziko zerrendan, baina garai bateko kontakizuna dira, xumeak eta duinak. Ekologiaren izenean teknologiaren banderak itsutu ez gaitzan eskatzen dugu. ●

## ANALISIA



## Segurtasunaren bidesaria

## PERU IPARRAGIRRE

Etorkizuna ez baita hein handi batean eraikitzen den zerbait besterik, etortzekoa den errepide sarea diseinatzeko lanetan ari da dagoeneko Espainiako Gobernua. Etorkizuna irudikatzerakoan gidaririk gabeko auto elektrikoak, semafororik gabeko hiriak, istripurik gabeko errepideak erraz etortzen dira gogora, ez baitira ideia horiek gutxitan errepikatzen hedabideetan. Hori guztia martxan jarri ahal izateko, ordea, errepideko –espazio publikoko– elementu oro kontrolpean edukitzea ahalbidetuko duen azpiegitura ezinbestekoa da.

Azken egunetan zabaldu den berri baten arabera, aurrera doa Espainiako Estatuko Trafiko Zuzendaritza Orokorrak (DGT, gaztelaniaz) proposatutako DGT 3.0 plataforma, eta 2026rako martxan egongo da. Hiru milioi eurotik gora ordaindu dituzte dagoeneko plataforma garatzeko, eta datozen lau urteetan amaituko dute lan hori, okerrik ezean.

Errepideko elementu eta ibilgailu guztien informazioa bateratuko duen plataformaz gain ibilgailuek eta bestelako erabiltzaile eta elementuek informazio hori helarazteko bideak ere behar dira. 2030. urterako bost urte baino berriagoak diren auto guztiak sarera konektatuta egongo omen dira, baina hori baino lehen ere izango da plataforma elikatze modurik: GPSaren bidez, mugikorren bidez (modu pasiboan eta erabiltzaileak berak emandako informazioaren bidez) eta baita 2026tik aurrera autoan nahitaez eraman beharko den larrialdietarako argiaren bidez ere. Orain arteko triangeluak ordezkatzeko dituen V-16 delakoak geolokalizazioa izango du, zirkulazioa arautzen duen administrazioak eta gaineko erabiltzaileek errepidean gertatzen diren matxura eta gisako gertakarien berri izan dezaten une oro.

Ondo arrazoitu du Gobernuak plataformaren xedea. Errepidean zero hildako, zero zauritu, zero buxadura eta zero emisio sortzea da helburua. Horretarako, errepidetako eta bertako erabiltzaileen egoera denbora errealean jasoko duen plataformara sarbidea izango dute udalek eta administrazio publikoak ere. Datuak modu anonimoan kudeatuko badituzte ere, “arriku egoeratan” Espainiako Barne Arazoetako Ministerioak ibilgailuen datuetara sarbidea izango duela zabaldu dute hainbat hedabidek.

Erabat automatizatutako etorkizun idilikoaren bidesaria ezinbestean hori baita, dirudienez; segurtasuna bermatzen duenak kontrola ezartzen du, herri eta hirietan ugaritzen ari diren segurtasun-kamerekin bezala. ●